| | | |
|---|---|---|
| Argentina | Río Colorado - Centro Vasco Ibaiko Euskaldunak | 1.385 |
| España | Salou - Centro Vasco de Salou «Txoko Lagun Artea» | 1.063 |
| Argentina | Buenos Aires - Club Vasco Argentino Gure Echea | 11.910 |
| Italia | Roma - Associazione Culturale Euskara - Erromako Euskal Etxea | 1.390 |
| Colombia | Bogotá - Fundación Centro Vasco Euskal Etxea | 45.653 |
| Argentina | Paraná - Centro Vasco «Ibai Guren» | 28.908 |
| Argentina | Tres Arroyos - Centro Vasco «Hiru Erreka» | 18.360 |
| Argentina | Chacabuco - Centro Vasco «Guillermo Larregui» | 15.493 |

## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### 5472

AGINDUA, 2007ko urriaren 3koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, giza eskubideen «Rene Cassin» saria deitu eta arautzen duena.

Deialdi honen xedea jendaurrean beren ibilbide pertsonal nahiz profesionalarekin giza eskubideak sustatzeko, defendatzeko eta zabaltzeko konpromisoaren lekukotza eman duten pertsonak edo gizataldeak jendaurrean aitortzea eta saritzea da.

Sariaren izena 1887ko urriaren 5ean Baionan jaio zen Rene Cassin jaunaren oroimenez ezarri da. I. mundu gerrako zorigaiztoko esperientziak eragin nabarmena izan zuen berarengan eta borrokan ibilitakoen eta gerrako biktimen defendatzaile porrokatua bihurtu zen. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren eragile nagusia izan zen 1948an, eta haren egitekoa ezinbestekoa izan zen Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean, 1950ean. Bakearen Nobel saria eman zioten 1968an, giza eskubideen alde etengabe lanean aritu zelako eta saria Giza Eskubideen Estrasburgoko Nazioarteko Institutua sortzeko erabili zuen.

Hori guztia dela eta, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari dagozkion eskumenen barruan, «Rene Cassin» saria deitu eta arautu da 2007 urterako.

Horiek horrela,

EBATZI DUT:

*1. artikulua.–* Helburua.

Agindu honen xedea 2007rako «Rene Cassin» saria emateko deialdia egitea eta arautzea da. Sariaren xedea

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

### 5472

ORDEN de 3 de octubre de 2007, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se convoca y regula, el Premio «Rene Cassin», de Derechos Humanos.

La finalidad de la presente convocatoria es reconocer públicamente y premiar a aquellas personas o colectivos que con su trayectoria personal o profesional dan testimonio de su compromiso en la promoción, defensa y divulgación de los Derechos Humanos.

La denominación del premio se realiza en recuerdo de D. Rene Cassin, nacido en Bayona el 5 de octubre de 1887. La trágica experiencia de la I Guerra Mundial le marcó profundamente, convirtiéndose en un resuelto defensor de los antiguos combatientes y las víctimas de la guerra. Fue el principal inspirador de la Declaración Universal de los Derechos Humanos en 1948 y jugó un papel esencial en la elaboración del Convenio Europeo de Derechos Humanos de 1950. Galardonado con el Premio Nobel de la Paz en 1968 por su combate infatigable a favor de los Derechos Humanos, consagró el Premio a la creación del Instituto Internacional de Derechos Humanos de Estrasburgo.

Por todo ello, en el marco de las competencias que le corresponden al Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, se procede a convocar y regular, para este año 2007, el premio «Rene Cassin».

En su virtud,

RESUELVO:

*Artículo 1.–* Objeto.

El objeto de la presente Orden es convocar y regular la concesión del Premio «Rene Cassin» para 2007,

pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak nahiz pribatuak, betiere irabazi asmorik gabekoak, giza eskubideen arloan izan duten jarduera nabarmentzea eta aitortzea da.

*2. artikulua.*– Sariaren ezaugarriak.

Deialdi honetako saria, epaimahaiak hala iritzita, horretarako merezimenduak egiaztatzen dituen pertsona edo egiaztatzen dituzten pertsonentzako izango da. Saria ohorezko aipamen batek, jendearen aitorpenak eta 15.600 euroko diru-zenbatekoak osatuko dute.

*3. artikulua.*– Onuradunak.

Agindu honek deitutako saria eskuratu ahal izango dute beren ibilbidean garatutako jarduerekin gure gizartean giza eskubideen baloreak sustatzen nabarmen lagundu duten irabazteko asmorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoek, publikoek nahiz pribatuek.

*4. artikulua.*– Hautagaiak aurkeztea.

1.– Edozein pertsona fisiko edo juridikok, publiko nahiz pribatuk, aurkeztu ahal izango dituzte sarirako hautagaiak.

2.– Sarirako hautagai bakoitzarekin honako hauek aurkeztu beharko dira:

a) Proposatutako hautagaiak egindako ekarpena egiaztatzen duten agiriak.

b) Hala egokituz gero, hautagaiak aurkezten dituztenen abal edo atxikimenduak, proposatutako pertsonaren edo pertsonen alde.

3.– Hautagai-proposamenak, aurreko paragrafoan ezarritako agiriekin batera, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Giza Eskubideen Zuzendaritzara bidali behar dira (Donostia kalea 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz), hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4. artikuluan ezartzen den moduetako edozeinetan.

4.– Epaimahaiak, ofizioz, gehituko ditu aurreko edizioetan aurkeztutako hautagaitzak, sarituak eta ez sarituak, baloratu ditzaten eta, horrela badagokie, saria jasotzeko aurkez ditzaten.

*5. artikulua.*– Sariaren kudeaketa.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Giza Eskubideen Zuzendaritzak egingo ditu deialdi honi dagozkion kudeaketa-lanak. Sariaren diru-zenbatekoa ordainketa bakarrean emango da.

*6. artikulua.*– Epaimahaia.

1.– Saria zein pertsonak merezi duen erabakitzeko, kalifikaziorako epaimahaia eratuko da, eta bertan, giza eskubideekin zerikusia duten ospe handiko pertsona ezagunek hartuko dute parte; halaber, epaimahaia aginduz izendatuko da eta Justizia, Lan eta Gizarte Se-

cuya finalidad es destacar y reconocer públicamente la actuación de aquellas personas físicas o jurídicas, públicas o privadas sin ánimo de lucro, en el ámbito de los Derechos Humanos.

*Artículo 2.*– Características del Premio.

El Premio de la presente convocatoria se concederá, a criterio del Jurado, a la persona o personas que acrediten méritos suficientes para ello. El Premio consistirá en una distinción honorífica, en un reconocimiento público, y en una cantidad dineraria de 15.600 euros.

*Artículo 3.*– Personas Beneficiarias.

Podrán optar al Premio convocado por la presente Orden, aquellas personas físicas o jurídicas, públicas o privadas sin ánimo de lucro, que, con su actuación y trayectoria, contribuyeren o hubieren contribuido de manera destacada a la promoción de los valores de los Derechos Humanos en nuestra sociedad.

*Artículo 4.*– Presentación de candidaturas.

1.– Las candidaturas al Premio podrán ser presentadas por cualquier persona física o jurídica, tanto pública como privada.

2.– Junto con cada una de las candidaturas al Premio habrá de remitirse:

a) La documentación pertinente que acredite la contribución del candidato propuesto al Premio.

b) En su caso, los avales o adhesiones que, a favor de la persona o personas propuestas, presenten quienes formalicen las candidaturas.

3.– Las candidaturas, junto con la documentación establecida en el apartado anterior, deberán dirigirse por cualquiera de los medios establecidos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente al de publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco, a la Dirección de Derechos Humanos del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco, c/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

4.– El Jurado, de oficio, incorporará las candidaturas presentadas y no premiadas en las anteriores ediciones para que pudieren ser valoradas y, en su caso, propuestas para la obtención del Premio.

*Artículo 5.*– Gestión del Premio.

Corresponderá a la Dirección de Derechos Humanos del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social la realización de las tareas de gestión que conlleva la presente convocatoria. La cantidad dineraria del Premio se abonará en un único pago.

*Artículo 6.*– Jurado.

1.– Para la elección de la persona o personas merecedoras del Premio se constituirá un Jurado, compuesto por destacadas personalidades de reconocido prestigio vinculadas con los Derechos Humanos, designado mediante Orden y presidido por el Consejero de Justi-

gurantza sailburua izango du epaimahaiburu. Epaimahaiaren osaera sariaren epaiarekin batera argitaratuko da.

2.– Epaimahaian idazkari gisa jardungo du, ahotsa duela baina botorik ez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Giza Eskubideen zuzendariak.

3.– Emandako botoen gehiengo sinplez hartuko dira erabakiak eta lehendakariak sor daitezkeen berdinketak erabaki ahal izango ditu. Idazkariak egiten diren jardueren eta hartzen diren erabakien akta egingo du. Aktan sariaren epaitza arrazoitzen duen irizpena azalduko da.

4.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen dituen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. eta 29. artikuluetan aurreikusitako kasuetan, epaimahaikideek abstenitu egin beharko dute, eta errefusatu ahal izango dira.

7. ***artikulua.***– Esleitzeko irizpideak.

Sarirako proposamena egiteko, epaimahaiak irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

a) Proposatutako pertsonak edo pertsonek jarduera giza eskubideen eremuan luzaroan garatu izana.

b) Giza eskubideen baloreak garatuz egindako jardueraren berezko garrantzia.

c) Proposatutako pertsonak edo pertsonek garatutako jarduerak edo ibilbideak gizartean izandako ondorioak eta eraginak, euskal gizartean nahiz atzerrian.

8. ***artikulua.***– Ebazpena.

1.– Epaimahaiak saria emateko proposamena egingo du eta bertan adieraziko du, ondoen dakien moduan, hartutako erabakia justifikatzen duten arrazoiak, deialdi honetako esleipen-irizpideei dagokienez, eta bai saritutako pertsona edo gizataldearen ibilbideak eta esanahiak merezi duen balorazioa ere. Salbuespen gisa proposatu dezake, gizarte eta giza intereseko arrazoi justifikatuengatik, saria hautagai gisa proposatu ez diren pertsona edo entitateei ematea.

2.– Epaimahaiak proposatu ahal izango du, halaber, saria hutsik uztea, proposatutako pertsonak edo pertsonek saria ez duela edo ez dutela merezi irizten badu.

3.– Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Giza Eskubideen zuzendariak erabakiko du saria nori eman, epaimahaiak aurkeztutako proposamena ikusi ondoren. Ebazpen hori interesdunari jakinaraziko zaio eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Giza Eskubideen 1948ko Adierazpen Unibertsalaren oroitzapena egiten denan.

9. ***artikulua.***– Jendearen aitorpena.

Jendaurreko aitorpen ekitaldia Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuak deituko du eta saria emateko jendaurreko ekitaldia izango da.

cia, Empleo y Seguridad Social. La composición del Jurado se hará pública junto con el fallo del mismo.

2.– En el Jurado actuará como Secretario, con voz pero sin voto, el Director de Derechos Humanos del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

3.– Los acuerdos serán adoptados por mayoría simple de votos emitidos, pudiendo dirimir el Presidente los empates que se puedan producir. El Secretario levantará Acta de cuantas actuaciones y acuerdos se adopten, debiendo figurar el dictamen razonado que fundamente el Fallo del Premio.

4.– Los miembros del Jurado deberán abstenerse y podrán ser recusados en los términos previstos en los artículos 28 y 29 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Artículo 7.***– Criterios de adjudicación.

Al objeto de formular su propuesta de concesión, el Jurado tendrá en cuenta los siguientes criterios:

a) Implicación prolongada de la persona o personas propuestas en el ámbito de los Derechos Humanos en el que desarrollare o hubiere desarrollado su actividad.

b) Relevancia intrínseca de la actuación realizada en el desarrollo de los valores de los Derechos Humanos.

c) Repercusión e influencia, tanto en la sociedad vasca como en la esfera internacional, de la actuación o trayectoria desarrollada por la persona o personas propuestas.

***Artículo 8.***– Resolución.

1.– El Jurado formulará una propuesta de concesión en la que expresará las razones que justifican, según su leal saber y entender, el acuerdo adoptado en relación con los criterios de adjudicación contenidos en esta convocatoria, así como la valoración que le merece el significado y trayectoria de la persona o colectivo premiado, pudiendo proponer, excepcionalmente, por razones justificadas y de interés social y humanitario, la concesión del Premio a personas o entidades no incluidas en las candidaturas.

2.– El Jurado podrá proponer, asimismo, que el Premio se declare desierto cuando, a su juicio, la persona o personas propuestas no resulten merecedoras del mismo.

3.– La resolución de concesión del Premio será dictada, a la vista de la propuesta elevada por el Jurado, por el Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social y será notificada al interesado y publicada en el Boletín Oficial del País Vasco con ocasión de la conmemoración de la Declaración Universal de los Derechos Humanos de 1948.

***Artículo 9.***– Reconocimiento público.

El acto de reconocimiento público será convocado al efecto por el Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, y consistirá en un acto público de concesión del Premio.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Deialdi honetan berariaz aurreikusi gabekoetan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean agindutakoa aplikatuko da.

*Bigarrena.–* Agindu honek administrazio-bidea agortzen du eta beraren aurka interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hil biko epean. Agindua Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira errekurtsoak aurkezteko epeak bi kasuetan.

*Hirugarrena.–* Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko urriaren 3a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* En todo lo no previsto expresamente en la presente convocatoria, será de aplicación supletoria la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*Segunda.–* Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán las personas interesadas interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, en el plazo de un mes, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses. En ambos casos, los plazos de interposición se contarán a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Tercera.–* La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de octubre de 2007.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

## 5473

EBAZPENA, 2007ko irailaren 3koa, Lan eta Gizarte Segurantza zuzendariarena. Honen bidez ebazten da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Ikastolen 2007. urteko Hitzarmen Kolektiboa erregistratu, gordailatu eta argitaratzea (8602022 hitzarmen-kodea).

AURREKARIAK

*Lehenengoa.–* 2007ko uztailaren 24an enpresa-zuzendaritzak eta, langileen ordez, enpresa-batzordeak aipatutako hitzarmen kolektiboari buruzko derrigorrezko dokumentazioa aurkeztu zuten zuzendaritza honetan.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

*Lehenengoa.–* Langileen Estatutuari buruzko Legeko 90.2 artikuluak (martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 29ko BOEn argitaratua) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, urriaren 18ko 315/2005 Dekretuko 17.f) artikuluak –Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren egitekoen eta organoen egitura ezartzen duena (2005-10-27ko EHAA)- xedatutakoaren arabera, eta martxoaren 2ko 39/1981 Dekretuak (1981-04-02ko

## 5473

RESOLUCIÓN de 3 de septiembre de 2007, del Director de Trabajo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del Convenio Colectivo de las Ikastolas de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa para 2007 (código de convenio n.º 8602022).

ANTECEDENTES

*Primero.–* El día 24 de julio de 2007 se ha presentado en esta Dirección, la documentación preceptiva referida al convenio antes citado, por la Dirección de la Empresa y el Comité de Empresa, en representación de las y los trabajadores.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

*Primero.–* La competencia prevista en el artículo 90.2 de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo (BOE de 29-03-1995) corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el artículo 17.f) del Decreto 315/2005, de 18 de octubre (BOPV de 27-10-2005) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, en relación con el Decreto 39/1981, de 2 de marzo (BOPV